

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

2017ko ekitaldian kreditu-transferentzien bitartez aurrekontu-aldaketak egiteko dosierren behin-behineko onespena

2017ko urriaren 27an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zien Gasteizko udalbatzak 2017ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu-aldaketak egiteko dosier hauei:

1. 15.000,00 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.03 aplikaziora — “Diru-laguntza, Oreitia menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
2. 16.384,32 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.04 aplikaziora — “Diru-laguntza, Gometxa menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
3. 12.137,52 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.05 aplikaziora — “Diru-laguntza, Jungitu menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
4. 14.809,36 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.06 aplikaziora — “Diru-laguntza, Ilarratza menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
5. 17.255,46 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.07 aplikaziora — “Diru-laguntza, Martioda menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
6. 16.464,14 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.08 aplikaziora — “Diru-laguntza, Otobarren menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.
7. 23.623,16 eurokoa kreditu-transferentzia, 01.82 1749 721.09 aplikaziora — “Diru-laguntza, Berroztegieta menpeko toki-erakundeari” —, diru-laguntza izendun berri bat sinatzeko.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen testu bateratua onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, 15 egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onartutzat joko dira dosier horiek baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 27an

Ogasun Saileko zinegotzia

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO